


Euskal AEko txikizkako sektoreko salmentak % 0,8 jaitsi dira 2024ko lehen hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmentak % 0,4 gutxitu dira

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorearen salmentak % 0,8 jaitsi dira 2024ko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, egutegiaren eraginak aterata, eta prezio konstanteetan. Salmenten urte arteko jaitsiera, gasolindegia kontuan hartu gabe, % 0,2koa izan da.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta dagozkion urtaro-ondorioak kenduta, salmenta-indizea % 0,4 murriztu da 2024ko lehen hiruhilekoan.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

2023ko lehen hiruhilekoaren aldean, *Elikaduraren* sektorean salmentak % 0,2 gehitu dira prezio finkoetan. *Gainerako produktuen* sektorean, aldiz, salmenten urte arteko jaitsiera % 0,5koa izan da 2024ko lehen hiruhilekoan. Azkenik, *Automobilgintzarako erregaiaren* sektorean, salmentak aurreko urteko hiruhileko berean baino % 9,1 txikiagoak izan dira.

2023ko laugarren hiruhilekoaren aldean, urtaroen eraginak kenduta eta prezio konstanteetan, *Elikagaien* salmentak % 0,3 gehitu dira. *Gainerako produktuetan* eta *Automobilgintzarako erregaian*, berriz, salmentak jaitsi egin dira hiruhileko artean, % 0,1 eta % 1,9, hurrenez hurren.

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). 2024/I

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	At / At-4
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	-0,8	-0,4	-0,8
Araba/Álava	-1,9	-1,3	-1,9
Bizkaia	-0,5	-0,1	-0,5
Gipuzkoa	-0,9	-0,4	-0,9
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Janariak	0,2	0,3	0,2
Elikagaien saltoki espezializatuak	-0,3	-0,4	-0,3
Elikagaiak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	0,4	1,0	0,4
Gainerako produktuak	-0,5	-0,1	-0,5
Pertsonaren ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	1,8	-0,6	1,8
Etxearen ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	-4,3	-1,6	-4,3
Kontsumoko beste ondasunetan espezializatutako establezimenduak	2,2	-0,5	2,2
Gainerako produktuak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	1,4	0,3	1,4
Automoziorako erregaiak	-9,1	-1,9	-9,1
INDIZE OROKORRA gasolindegirik gabe	-0,2	0,1	-0,2
LANGILERIA-INDIZEA			
Euskal AE	1,5	0,1	1,5

(p)Behinbehineko datuak

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

At/At(4) Lehen hiruhilekotik behatutako azkenekora arte metatutako aldiko urte arteko tasa (At) aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean

Data 2024ko Maiatzaren 8a

Iturria: Eustat. Txikizkako Merkataritzaren Indizea (BMIt)

Elikaduraren txikizkako merkataritzaren barruan, *Elikagaietan*, *edarietan* eta *tabakoan espezializatutako* merkataritzan (fruta-dendak, harategiak, arrandegiak, etab.), salmentak % 0,3 jaitsi dira 2023ko lehen hiruhilekoaren aldean. *Elikagaiak*, *edariak* eta *tabakoa nagusi diren txikizkako merkataritza ez-espezializatuak* (supermerkatuak eta hipermerkatuak nagusiki) (supermerkatuak eta hipermerkatuak, batez ere), aldiz, salmentak % 0,4 igo dira urtetik urtera.

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzaren barruan, *Beste kontsumo-ondasun batzuetan espezializatutako* sektorearen salmentak (besteak beste, kirol-gaiak, jokoak edo jostailuak, besteak beste) % 2,2 gehitu dira aurreko urteko lehen hiruhilekoaren aldean. *Pertsonen ekipamenduan espezializatutako* sektorean (arropa, oinetakoak, kosmetika- edo higiene-produktuak), salmenten urte arteko hazkundera % 1,8koa izan da, eta *Gainerako produktuak nagusi diren txikizkako merkataritza ez-espezializatuaren* sektorean (korrespondentzia edo Internet) % 1,4koa. *Etxeko ekipamenduan espezializatutako* sektorean (etxetresna elektrikoak, altzariak eta telekomunikazio-ekipamenduak), salmentek % 4,3ko jaitsiera izan dute.

Lurralde historikoen arabera, 2024ko lehen hiruhilekoko salmenta-indizeak urte arteko jaitsiera izan du lurralde historiko guztietan. Araban indizea % 1,9 jaitsi da, Gipuzkoan % 0,9 eta, azkenik, Bizkaian % 0,5.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, salmenten bilakaera ere negatiboa izan da hiru lurraldeetan. 2023ko laugarren hiruhilekoaren aldean, Araban salmentak % 1,3 jaitsi dira, Gipuzkoan % 0,4 eta, azkenik, Bizkaian % 0,1.

2024ko lehen hiruhilekoan, Euskal AE osoan, txikizkako merkataritzaren sektorean lan egiten duen pertsona kopurua % 1,5 gehitu da aurreko urteko lehenengo hiruhilekoaren aldean. 2023ko laugarren hiruhilekoaren aldean, enplegua % 0,1 gehitu da.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hiruhileko honetako indizea laginaren % **80,0ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62